

Ignacio Kortabarria Antia
Antzuola, Gipuzkoa (1928)

Aurkibidea

Biografia

Lizarraga auzoko Aranburu baserrian jaio zen 1928ko ekainean. Umetan baserrian lan egin behar izaten zuen anaiekin batera, baina gerora Bergarara joan zen mekaniko lanbidea ikastera. Ezkondu zenean Eibarrera joan zen bizitzera.

Zintak

ANT-026

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aramendi, Ion
- **Data:** 2004-01-20
- **Iraupena:** 12 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Gerra Zibila Antzuolan

- **Erref:** ANT-026/001
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:10

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra Zibila hasi zenean, bederatzi urte zituen. Frontea Elgetan egon zen zazpi hilabetean. Auzo-eskolara joan eta bertatik tiroak entzuten zituzten. Milizianoen eta nazionalen tiroen hotsak desberdinak ziren. Jende askok ihes egin zuen. Bergaratik jendea Antzuolara joaten zen. Bilbotik Ingalaterrara joandakoak ere ezagutzen ditu. Moroak Deskargatik behera.

Transkripzioa

- Gerria hasi zanian gaztia ziñen?
- Beratzi urte.
- Beratzi urtegaz gerrara joan biharrik ez ziñuan euki, baiña eskapa edo egin ziñun gerratik-edo?
- Ni nok izatez Antzuolakua, basarri batekua, eta guk ikusten giñustan gerria hantxe, eta Elgetan egon zuan zazpi hillebetian gerria, frentia, eta gero hortik pasau zittuan Bilbora. Eta gu mutikuak, han auzo-eskolara jun eta handik ikusten giñuan tau-tau-tau-tau, tiruak, eta pa-kum! pa-kum!, gorrixen tiruak izaten zittuan eta tatatatata!, zerak, hamengo soldauak botatzen juen eta, pa!-kun!, gorrixen tirua.
- Eta orduen basarrira eta ez zien etorri, ez?
- Ez.
- Eta eskapa ibiltten zan jentie gerratik edo?
- Bergatik Antzuolaraiño etorri zittuan, gure etxian e Bergako batzuk egon zittuan.
- Eskapa eindde?
- Eskapa einda ba hantxe. Iñora jun ezinda.
- Eta ezagutzen dozu baten bat Bergara joan biharrien kanpora joan dana, ez dakit ba Ameriketara edo?
- Hor ba asko joan zittuan aurrera, gero Ingalaterrara be bai, barkuan sartu Bilbon eta gure edadekuak, hamen Mañariko Adriana Amantegi eta horrek eta holaxe joan zittuan. Gu ez giñustan jun iñora. Gure lehengusua be kalekua etorri zuan, haura gure anaia baiño zarraua zuan eta, eta harek gerria datorrela, moruak datozela Zumarratik honutz Deskargan eta hil itten zittuela eta orduan rumoriak. Gure anaia zarrena, hamar urte gehixakua zuan, eta hari ba benga!, jun in biher dabela. Gure aittak ametidu ez.
- Ametidu ez?
- Ez, hilte ezkerro danok hilgo gala bertan. Ez jotxan laga juten.

2. Uzarragako auzo-eskolan ikasitakoa

- **Erref:** ANT-026/002
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:02:10. **Bukatu:** 00:02:50

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Auzo-eskola, Uzarragan. Etxetik baba-lapikoa eramaten zuten eta bertan bazkaltzen zuten. Ume asko eskolara joan gabe geratu zen. Sakristauak ematen zituen klaseak. Cara al Sol abesten zuten eskolan.</p>

Transkripzioa

- Sasoe hartan eskola joaten ziñien?
- Auzo-eskola batera, Uzarrara juten giñustan.
- Auzo-eskolie?
- Bai. Eta han. Lapikua eruan etxetik, amak egosi babak, ta han berotu eta jaten giñustan.
- Jentie egongo zan eskolara joan biharrien basarrixen gelditzen zana be.
- Etxian ba asko. Gu jun giñustan auzo-eskolia, han etxetik albora jauan eta hantxe. Sankristau itten eban bat, zuan zar bat, eskola puxkat bajaukan. 'Cara al Sol' kantau eraiñ eta itten joskuan.

3. Gerra osteko egoera

- **Erref:** ANT-026/003
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:03:40

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Artoa, garia, babak hartzen zituzten baserrian eta ez zuten gerra ostean goserik pasatu. Ogia astean behin egiten zuten. Errotara joan behar izaten ziren garia ehotzera.</p>

Transkripzioa

- Gerrie pasau ta gero jana beharra euki ziñuen edo jana beti euki dozue?
- Bai, gurian basarrixan hartzen zuan artua, garixa, ta babia ta anea asko. Langostinoik eta ez ez giñuan jaten, baiña artua, sagarra, babia, ogixa, etxian itten zuan orduan ba, zera, labia jeuan eta zortzi egunetik eitten zuan etxian ogixa. Errotara joan, gure etxe onduan errotia zuan, han uruna gertau, preparau, etxera ekarri eta gure amak eta eitten juen, amamak´e bai. Labeko sua esaten jakuan.

4. Gerra osteko egoera: razionamentua; gosea

- **Erref:** ANT-026/004
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:04:45

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Kalean erosi beharrekoak: olioak; etab. Errazionamendua egon zen. Baserrian ez zegoen dirurik; txahala saltzen zuten. Beranduago etorri zen lantegietara lanera joatea; kanpotik jornala ateratzea. Kalean gosea.

Transkripzioa

- Estraperlue egoten zan, edo preziuek eta igoten ziren gerrian ondorioz.
- Ez. Guk etxian, ostian ba olixua ta horrek estraperluan-eta eukitzen juen orduan, erraziñua emoten juen. Erreziñua dok pa, apuntauta darenak, kanpotik ekarri bihar izeten zuan olixua ta hainbeste. Tabakua be erraziñuan emuten juen.
- Baiña dirua-eta, preziuak igo eben?
- Diruak eta orduan..., basarrixan etxeuan. Txahala saldu urtian behin, txahal batzuk, gurian ardixak be bai, bildotsak, eta hantxe. Eta gero egurra be bai saltzen juen, panaderixetara ta kalera sua eitteko, panaderixetan ogixa eitteko. Dirua, dirua, jornalik etxeuan orduan iñun.
- Jornalik ez?
- Gero etorritakua dok hori fabrikan jornala eta hori. Orduan etxeuan. Basarrixan bizi. Kalia gosia egoten zuan eta kaletarrak orduan basarrira jatera.

5. Baserriko bizimodua; gerora Bergarara ofizioa ikastera

- **Erref:** ANT-026/005
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:05:15

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Politika » Politika eta Franco
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Frankismoa. Berak baserrian lan egiten zuen hasieran, anaiekin batera. Gerora Bergarara joan zen mekaniko lana ikastera. Gerora soldadu joan zen.</p>

Transkripzioa

- Zela bizi izan ziñuan (Francoren denporia)?
- Ni basarrixan lana eitten giñuan guk anai-arreba danak. Orduan halaxe zuan. Eta gero ni hasi nintzuan ba Bergarara lanera, garaje baten puxkat lana eittera.
- Andrea: Mekaniko ikesten.
- Antomobillak ikusten. Ikusi eta orduan zerbait nahi ikistia ta. Te gero ba soldau.
- Eta basarrixan bizi...
- Aittaitta eta amama, eta aittaitakin basarrixan bizi. Eta guk ba artajorran-eta, basarriko lanak eitten giñustan.
- Gerra sasoi?
- Lau-bost behi eukitzen giñustan, ardixak e bai, eta haretzek saldu hazten giñuanian txahala.

6. Baserriko bizimodua; lanak

- **Erref:** ANT-026/006
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:05:40

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Baserriko bizimodua; lanak. Artajorra; behiak jeztea; etab.</p>

7. Hizkuntzaren egoera gerra ondorengo urteetan

- **Erref:** ANT-026/007
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:07:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Frankismo garaian ez zuen arazorik izan euskalduna izatearren. Antzuolan maristak zeuden; bertara esnea eramatera joaten zen. Auzo-eskolan, euskaraz egitearren eraztuna jartzen zieten. Maisuei nola esan behar izaten zieten agur. Antzuolan 3-4 pertsonak bakarrik zekiten erdaraz.

Transkripzioa

-Iñoiz eukin dozu problemaik euskeldune izatiagaz frankismuagaz?
-Ez, ez. Guk erderaz ez genkixen, eta guk Antzuolan zuan herrixa, Maristak jestan orduan. Zazpirehun marista gu mutikuak giñanian. Eta ni(k) astua(n) esnia eruaten najuan komentura. Guk erderaik bate ez genkixen, eta eskolan gebitzela emoten joskuen holako, anillua esaten gontsan, holako burdiña zati bat errekreio denporan. Harek bati emon eta haura azkenengo eukitzen ebanak kastigua eitten (j)oskuen, eskolaa jun eta gero kastigau. Erderaz in biha zuan eta! Maixuak eta, orduan eskola-maixuak eta edukaziño [...] eta eskola haundikuak zittuan maristak. Eta edukaziñua emuten joskuen, despedidu in bihar izeten zuan illuntzian etxera

juterakuan e. Jun eta atian bere parian jarri eta: "usted lo pase bien". Esan eraitten oskuen. Ze esaten giñuan ez genkixaun. Bai ba. Ez genkixaun erderia batere ta! Batere ez. Antzuolan sekretarixuak ta abadiak jakixen bakarrik erderaz. In iñokez.

-Iñopez?

-Iñokez ba.

8. Ezkertiak eskumarekin idaztera behartuta

- **Erref:** ANT-026/008
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:07:15

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Eskumako eskuarekin idaztera behartzen zuten ezkertia zena.</p>

Transkripzioa

-Egixe da ezkertixek eta ezkerreko eskue lotu eitten utsiela?

-Eskumiakin eskribidu obligatzen juen. Eta ezkerakin ez, eskumiakin. Ni eskumatixa izen nok beti eta nik eskumiakin ein juat nere denpora guztian.

9. Mutikotako okerkeriak gaztaineekin ordaindu behar

- **Erref:** ANT-026/009
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:08:25

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetako okerkeriak.

Transkripzioa

-Eta gero iñoz esan dozu diru faltia zala ta zela baten kristel bat apurtu ziñun.

-Bai. Baten han etxe bat jeuan kontran eta mutikua gaztia ni, eta han tabloiak-eta, kastilluak eindda onduan, eta beste mutiko batek esan jostan: "Txorixa jak hor, txorixa". Harrixa hartuta jaurti otxak txorixai harrixa, eta ostekaldian etxia eta kristala apurtu. Eta neskazahar batzuk bizi zittuan han, eta nik ba hanka in najuan segiduan, momentuan edo zerian eta, han etorri zuen neskazaharra: "Hermano Andrés, quién ha roto el cristal?", erderaz. Ixilik, ixilik, eta bajakixan zein izan zan eta alboko mutikuak txibatauk jotsen. "Este!" Gero ba etxian enterau zittuan eta hiru kilo gaztaiña edo eruan najittuan kristalan ordeztu.

-Dirurik ez eta kaztaiñiaz pagau.

-Gaztaiñiaz pagau. Ba horixe ein najuan.

10. Bonbardaketetan tunelean ezkutatuta

- **Erref:** ANT-026/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:08:25. **Bukatu:** 00:10:20

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bonbardaketa Antzuolan. Trenaren tunelak zeuden (3) eta bertara joaten ziren ezkutatzera. Gernikako bombardaketa. 24 hegazkin pasa ziren beraien etxe aurretik Gernikako norabidean. Elgetako bombardaketak. Antzuolan soldaduak egon ziren; "kaballerixia".

Transkripzioa

- Bonbardeue izan zanian, jentie Antzuolan bertan ez zan bonbarik eta jausi, ez?
- Ez. Bai, jausi zittuan. Geure etxe onduan eta be bai, bonba txikixak baiña. Jausi zittuan.
- Eta jentiek ez zaben iguel kobetara edo...
- Bai, orduan jeuan han, tunela pasatzen zuan trena. Eta gure etxe parian goixan jarek hiru tunel. Trenbidekuak. Desaparesidu zuan trena baiña hantxe; haraxe juten giñustan.
- Andrea: Oinddio tunela egongo da. Pasue jentiek euki eban han basarrikuek.
- Bai. Haraxe junda hantxe egoten giñustan.
- Tunelpian?
- Tunelpian. Eta gero orduan epoka haretan ez zeuan egon trenik be eta hantxe, haraxe junda ba billurrez, bonbardeua, beti gizurra edo abarra kontua beti sortzen zuan. Ni akordatzek nok Gernika bonbardeau ebanien e, goizeko hamar terdiak inguruan izen zuan, hogeta lau abioi gure etxe parian pasau zittuan Gernikara.
- Bonbardietan?
- Bonbardiatzen. Alemanak edo bonbardeau juen. Akordatzek nok ni, gu kontatzen etxetik, ta, ta, ta. Gernika bonbardiau juen. Eta hamen Elgetan be abioi txikixak eta bonbardero txikixak sarri, du-du-du, ikusi beste mendittik, gure herri aldeko mendittik ikusi eitten giñustan nola [...]. Orduan soldauak, konpañiak egon zittuan asko eta, kaballeixia egon zuan Antzuolan. Jenerua eta eruateko baakik, bonbak eta gauzak soldauei eta zerian eruateko kaballeixia. Gure etxe ondora etortzen zittuan ura eratera, hogeta hamar berrogei kaballo igual, erak gaiñian. Eta guk mutillak ezautu be asko eitten giñustan, "Korkozabal", "Txatua" ta izenakin danei ipinita eukitzen giñustan.

11. Gerrako bizipenak

- **Erref:** ANT-026/011
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:11:15

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Soldaduekin harremana nolakoa. Beraiei ez zieten abererik kendu. Otxandion senide batzuek idiekin jeneroa eramaten jardun behar izan zuten soldaduentzat. Elgetako frontea.

Transkripzioa

-Orduan iñoz ez dozu euki soldauekaz ta basarrira etorri direla eta ganauek eta eruen eta.

-Ez, guri ez, ez joskuen sekula be ez. Hori in jotsek hamen askoi behixak eta eruan. Mañariko aittaitta ta Otxandixora jun zittuan honek e. Aittaitta be ganauekin muniziñua eruaten. Idixekin hartu bonbak eta Otxandixora eruaten. Eske gorrixak jeztan alde hortatik, eta bestiak, karlistak, Frankodunak bestekaldetik, eta hamen zazpi hillabetian Elgetan-ta egon zuan, Otxandixon... gerria. Eta haundiña Elgetan egon zuan. Frentia hor egon zuan. Gabaz gorrixak hartu eitten juen hau, Elgeta eta honutz eta gero egunez bialtzen jittuen.

-Barriro?

-Barrido.

12. Gerra ostean baserritarak kalera lanera

• **Erref:** ANT-026/012

• **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:12:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

"Kalea baserritik sortutakoa da". Orain baserritarra kaletik bizi da; baserritik ez dago bizimodua ateratzerik.

Transkripzioa

-Gerria amaittu zanian asko aldatu zan hau?

-Bai, asko, asko kanbixau zuan. Eta gero reboluziñuak ekarri jok hamen ba gauza asko. Eta jornal, fabrikak eta hasi dittuk jornalak eta gauzak. Orduan ba basarrittik bizi zuan jendia. Kalian ez jauan ezer eta. Eta nik esango dostat: kalia be basarrittik sortutakua dok. Oin hoixe pasatzen dok hemen, basarrittar danak ba jarek kalera etorritta. Jornalak emuten jok, ostian lurrak eta baserriko jeneruak ez jok emoten ta. Jornalik ez jak hor eta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com